



**Arartekoaren 2023R-1902-2022 Ebazpena, 2023ko urtarrilaren 20koa. Horren bidez, Arartekoak Bilboko Udalari gomendatu dio ikertu ditzala poliziaren jarduera batzuk, izan ere, baliteke haietan indarra modu desegokian eta neurritz kanpo erabili izana.**

### Aurrekariak

1. Erakunde hau, WhatsApp mezu baten bidez Bilboko 2022ko Aste Nagusian zehar Udaltzaingoak egindako jarduketa baten berri izan zuenean, ofiziozko espediente bat izapidetzen hasi zen salaturiko gertakarien berri izateko eta Arartekoak poliziaren balizko jarduketa desegokiak (bereziki, barne-ikerketari eta indarraren erabilerari dagokienez) prebenitzeko egindako gomendioak nola bete ziren egiaztatzeko xedearekin eta, hala badagokio, aipaturiko gertakariak berriro gerta ez daitezen beharrezkoak diren neurriak proposatzeko.
2. Jarduketa hori gauzatzeko, Arartekoak Bilboko Udalari honi buruzko informazioa emateko eskatu zion:
  - a) Zehazki, zer inguruabarretan egin zituen Udaltzaingoak bi jarduketak.
  - b) Hala badagokio, ea poliziaren eskuhartzea, indarraren erabilerari dagokionez, Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzko [Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren](#) IV. atalean ezarritako zehaztapenetara egokitu zen.
  - c) Ea agenteek zehatz-mehatz dokumentatu zuten erabilitako indarrari buruzko errekurtoa, eta ea hierarkian gorago daudenek erabilitako indarkeriaren egokitasun-judizioa egin zuten eta berau berretsi zuten, Gomendio Orokorren II.2.1 atalean adierazitako baldintzetan.
  - d) Indarraren erabilera eta barnekontrola jaso zituzten dokumentuak, halakorik balego.
3. Eskaera horri erantzunez, aipaturiko udalak honako informazio hau helarazi zion Arartekoari:
  - a) *“La actuación se inició al observar los agentes, que se encontraban realizando labores de patrulla preventiva no uniformada, cómo cuatro jóvenes se acercaban en actitud sospechosa a una pareja joven que se encontraba en el acceso a la Plaza Nueva por la calle Cueva de Altxerri, comenzando a abrazar a la chica, aprovechando uno de ellos ese momento para abrir su bolso y sustraerle el teléfono móvil, por lo que se dirigieron al lugar, comprobando cómo estos jóvenes hacían la misma maniobra con el joven que acompañaba a la chica, comenzando a abrazarle y a colocarle la pierna por delante, con el objetivo de distraerle y desequilibrarle para perpetrar un nuevo ilícito penal. Los agentes, a fin de evitarlo, emprendieron*



*la carrera hacia al grupo, de lo cual se percataron los jóvenes varones que lo componían, que salieron corriendo hacia el interior de la Plaza Nueva, logrando los agentes interceptar a uno de ellos, el que llevaba el teléfono móvil sustraído a la joven, un Iphone 12 de color blanco. El teléfono fue recuperado y el autor del hurto resultó finalmente arrestado, a lo cual opuso resistencia, forcejeando e intentado huir. Señalar que el arrestado ya había sido detenido en 5 ocasiones anteriores durante la Aste Nagusia".*

- b) Gazte bat atxilotetaren lekuko izan zen eta haren jarduketak hiru salaketa eragin zituen, Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoa oinarri hartuta (aurrerantzean, HSBLO) (agintaritza-agenteei errespetua galtzeagatik, agintaritza-agenteen egikaritza legitimoa eragozteagatik eta agintaritza-agenteen aurrean identifikatzeari uko egin izanagatik). Era berean, pertsona horrek salaketa egin zuen agenteen kontra, lesioengatik. Salaketa hori Bilboko instrukzioko epaitegian izapidetzen ari da.
- c) Esku hartu zuten agenteek indarraren erabilerari buruzko txostena egin zuten, 23AO Agindu Orokorrean ("Txostena egitea, indarra edo arauzko armak erabiltzeagatik") ezarritako ereduaren arabera, atxilotuari zein atxilotetaren lekuko izan zen pertsonari dagokienez.
- d) Udaltzaingoko intendente buruak Idazkaritza Teknikoko Ataleko Burutzari eskatu zion barne-ikerketak bat ireki zezala, NAIZ egunkari digitalak abuztuaren 29an "Denuncian una agresión policial en Bilbao por responder a una detención violenta" (Poliziaren jarduketak bat salatu dute Bilbon indarkeriazko atxilotetarik bat delakoan) izenburupean argitaratu zituen gertakariak argitze aldera.

Informazio gehiago biltzeko xedearekin, barne-ikerketaz arduratu zen organoak esku hartu zuten agenteen arduradunari eskatu zion poliziaren jarduketak baloratzeko txosten bat egin zezala.

Bildutako informazioa aztertu ostean, barne-ikerketan, atxilotuari dagokionez, ondorioztatu da irudietan agenteen adierazpenak egiaztatzen direla; hau da: *"que se inmoviliza al autor contra la pared, junto al portal, momento en que éste comienza a revolverse gritando que no había hecho nada, tratando de zafarse de los agentes, y con una maniobra de inmovilización que finaliza en el suelo".* Añade que *"los agentes continúan con la inmovilización en el suelo ya que, según su versión, consiguió romper las bridas-lazo de nylon utilizadas en la práctica de la detención y por la resistencia del detenido".*

Azkenik, honako balorazio hau helarazi da: *"Verificada la actuación por las imágenes, se observa el uso proporcional de la fuerza empleada por los*

*agentes que actúan para la inmovilización del detenido, el cual opone resistencia. Por lo que se concluye que no ha habido un uso desproporcionado de la fuerza para vencer la resistencia ofrecida por el detenido". Sin embargo, sí reconoce que "hay un reproche en la actuación del agente nº XXX, el cual, cuando se acerca al detenido en el portal le empuja, dándole contra la puerta".*

Gertakarien lekuko izan zen pertsonarekin egindako jarduketari dagokionez, honako hau baieztatu da: *"este instructor no aprecia el uso desproporcionado de la fuerza por parte de los agentes en la identificación de XXX, al cumplirse los requisitos establecidos para el principio de proporcionalidad".*

- e) Jarduketa eta aurreko atalean aipaturiko indarraren erabilera baloratzeko txostenean honako hauek hartzen dira aintzat: polizia-atestatua, esku hartu zuen agente baten txostena, esku hartu zuten agenteetako batek prestatuturiko indarraren erabilerari buruzko txostena, jasotako bideozaintzako irudiak eta sare sozialetan bildutako informazioa.

Txosten horretan, egiaztatu ostean agenteek ikusi zutela atxilotuak hainbat konplizerekin batera ebasketa-delitu bat burutu zuela, atxilotua harrapatu eta atxilotu zutenera arteko gertakariak nola gertatu ziren zehaztu da, eta balorazioarekin amaitzeko, besteak beste, honako hau adierazi da:

*"Debido a que el interceptado se resiste de forma pasiva en un principio a la actividad de los agentes, intentando abandonar el lugar por la fuerza posteriormente, empujando a los actuantes, que son conocedores de la violencia que suele emplear para conseguir sus objetivos, los agentes le inmovilizan en primera instancia en el rellano exterior de un portal cercano. Es necesario traer a colación en este punto que el arrestado adquirió tal calidad en 5 ocasiones durante la propia Aste Nagusia por delitos contra el patrimonio en los que intervinieron recursos de Policía Municipal de Bilbao y la calidad de investigado en el mismo periodo por infracciones contra el patrimonio y las personas en las que actuaron recursos de la Ertzaintza.*

*(...)*

*Tras analizar los elementos que se refieren a la intervención con D. xxx. No parece que la intervención de los agentes se deba a motivos racistas como se ha publicado...*

*(...)*

*Como único reproche y desde una perspectiva crítica de la intervención se podría citar que la inmovilización y traslado del arrestado se debería haber realizado de forma más inmediata, evitando forcejear con aquel".*

- f) Txosten horretan, era berean, adierazi da honako egoera honetan zeudela: *"un escenario del todo complicado como es el Casco Viejo bilbaíno en plenas fiestas patronales y a altas horas de la madrugada"*. Horrez gain, zera adierazi da: *"y ante la posibilidad de que los agentes de Policía que prestan servicio en la zona puedan ser víctimas de algún tipo de ataque, ya anunciado previamente en pasquines y redes sociales, obligando aquello a ser resolutivos, ágiles y efectivos en su labor"*. Honela, txostenean, agenteei gatazka-egoerak ekiditeko helarazitako neurriak jasotzen dira.

Era berean, atxilotuarekin eta gertakarien lekuko izan zen pertsonarekin egindako jarduketari buruzko azken balorazioan honako hau adierazten da: *"si bien hay elementos de actuación mejorables y que pueden ser objeto de reconversión por parte de Bilboko Udaltzaingoa, se deben tener en cuenta las circunstancias contextuales de entorno, temporalidad, periodo, contexto social y político que hace que la actuación transite en los parámetros que lo ha hecho"*.

- g) Udalak Arartekoaren informazio-eskaerari emandako erantzunean honako hau adierazten da: *"las conclusiones a la que se llega en dicha investigación son que en la práctica de la detención no hay un componente discriminatorio de raza en el momento de la detención y que hay un uso proporcional de la fuerza empleada por los agentes en dicha detención, si bien se observa alguna práctica mejorable"*. Atxilotetaren lekuko izan zen pertsonarekin egindako jarduketari dagokionez, honako hau adierazi da: *"se establece en dicha investigación que no se aprecia el uso desproporcionado de la fuerza por parte de los agentes en la identificación, al cumplirse los requisitos establecidos para el principio de proporcionalidad"*.

Indarraren erabilera eta barne-ikerketa jasotzen duten dokumentuei dagokienez, Udalak esku hartu zuten agenteetako baten salaketa-akta aurkeztu zuen. Salaketa horretan (HSBLOa urratzeagatik aurkeztua) atxilotetaren lekuko izan zen pertsona salatu zen. Era berean, Udalak honako hauek ere aurkeztu zituen: aipaturiko agentearen txosten osagarria; Ikerketa eta Analisisiko Ataleko komisariordearen jarduketaren balorazio-txostena; Idazkaritza Teknikoko Ataleko buruak egindako barne-ikerketaren txostena; eta bideozaintzako kamerek grabaturiko irudietatik lortutako jarduketari buruzko txosten fotografikoa.

Azkenik, adierazi da arestian zerrendaturiko dokumentazio guztia bidali dela Instrukzioko Epaitegira, bai eta atxilotetarik bideratutako atestatua eta esku-hartzearen irudiak jasotzen dituen CD bat ere.

4. Beranduago, erakunde honek hala eskatuta, esku-hartzearen irudien kopia bat bidali zen.



5. Erakunde honek dakienaren arabera, atxilotetaren lekuko izan zen pertsonaren aurka egindako salaketak baliogabetu egin dira, Bilboko Udalak salatuak egindako alegazioak onetsi ostean.

### Gogoetak

1. Adierazitako gertakarien zerrenda kontuan izanda, gutxienez azertu beharreko bi alderdi jarri dira mahai gainean.

Lehenik eta behin, ustez telefono mugikor bat ebatsi izanagatik gazte bat atxilotzeko egindako polizia-jarduketa baloratu nahi da, argitzeko ea erabilitako indarra neurritzkoa eta egokia izan zen, eta arrazoi arrazistarik egon zen poliziaren esku-hartzea gauzatzeko.

Bigarren alderdi bat da poliziaren jarduketa aztertzea aipaturiko gertakarien lekuko izan zen gazteari dagokionez, azken honek poliziaren esku-hartzean izan zuen jarduerak, adierazi bezala, hiru salaketa jartzea eragin baitzuen, HSBLO urratzeagatik. Gazte honek, bestalde, salaketa egin zuen agenteen kontra, lesioengatik. Salaketa hori, une honetan, Bilboko instrukzioko epaitegian izapidetzen ari da.

Gazteari dagokionez, Arartekoak ez du esku hartuko haren kontra jarritako salaketak direla-eta, izan ere, horiek baliogabetu egin dira salatuaren alegazioak onetsi direlako, eskuduna den organo zehatzailearen dagokion ebazpenaren bidez.

Beste azterketa bat egin behar da poliziak gazte horren harira egindako esku-hartzeari dagokionez, zeinak salaketa bat eragin baitu jurisdikzio-ordena penalean, lesioen delitu batengatik.

Horri dagokionez, adierazi beharra dago Ararteko erakundea arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikuluan zera ezartzen dela: *“Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko. Horretan hasi ondoren doakionen batek agizko Epaitegien edo Konstituzio Epaitegiaren aurrerako zuzenketa-eskea edo gora deia sartzen badu, azterketak geldiarazi egingo dio.”*

Horregatik, erakunde honi helarazitako informazioa ikusi ostean, Arartekoak agenteek atxilotetaren lekuko izan zen pertsonarekin egindako jarduketari dagokion esku-hartzea etetea eta agenteek atxilotuarekin egindako jarduketari dagokionarekin jarraitzea erabaki du.





Nolanahi ere, atxilotuaren kasuan bezala, Arartekoak prebentzioaren esparrutik esku hartuko du eta urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorra ("Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari" buruzkoa) betetzen dela kontrolatuko du. Esku-hartze hori dela eta, Arartekoak azpimarratu du beharrezkoa dela polizia-arduradunek barne-ikerketara bat gauzatu dezatela agente batek buruturiko balizko okerreko jarduketa baten berri duten guztietan, gertakariak argitzeko eta egiaztatzeko ea jarduketa behar bezala gauzatu zen eta, hala badagokio, beharrezko diziplina-neurriak edo bestelako neurriak hartzeko.

2. Hain zuzen ere, "Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari" buruzko urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean, gaur egun horren harira daukagun jarrera jasotzen da (II.1.1 atala) eta bertan Arartekoak nabarmendu du ikerketaren edukia kasuan kasuko jarduketa argitzeko egokia eta nahikoa izan behar dela. Halaber, agerian utzi da gertatutakoa ezagutzen saiatzeko ahalegina egin behar dela beti eta gertaerak argitzeko baliagarriak diren arrazoizko ikerketa-aukera guztiak agortu behar direla. Adierazi da kexan aipatutako agenteek gertakari buruzko beste bertsio bat emateak berez ez duela balio beste ikerketa batzuk baztertzeko edo jardueraren egokitasunari buruzko iritzi baten oinarri gisa erabiltzeko. Era berean, kexak ikertzean, ez da nahikoa esku-hartzean parte hartu duten agenteen lekukotasuna jasotzea, salbu eta beste ikerketa-jarduera batzuk egiteko ezintasuna justifikatzen ez bada; era berean, agenteen bertsioa ezin da besterik gabe ontzat eman. Agerian jartzen da, gainera, azken bi jarraibide horiek berebiziko garrantzia dutela, polizia-atestatu batean edo salaketa administratibo batean jasotako bertsioaren egiazkotasuna zalantzan jartzen denean.

Aurrekarietan adierazi bezala, Bilboko Udalak gertakarien berri izan ostean egin duen ikerketaren berri eman dio erakunde honi eta horren harira egindako txostenak bidali ditu; horien artean, honako hauek daude: esku hartu zuten agenteetako batek indarraren erabilerean harira egin duen txostena, dagokion agintaritzak jarduketa baloratzeko igorri duen txostena (bertan, lortutako ondorioak jasotzen dira), eta Udaltzaingoko intendente buruak agindutako barne-ikerketaren txostena.

Hortaz, Bilboko Udalak indarraren erabilera dokumentatu eta arrazoitu du, barne-ikerketa bat egin du gertakariak argitzeko eta atxilotuaren erresistentzia gainditzeko gauzatu zen indarraren erabilerean inguruan duen iritzia helarazi du, esku hartu zuten agenteetako batek egindako kontakizuna eta bideozaintzako kamera bateko grabazioa oinarri hartuta. Azken hori baliagarria da agenteak berak ikertu diren gertakarien inguruan azaldu duena egiaztatzeko.

Gertakarien lekuko izan zen pertsonarekin egindako polizia-jarduketari dagokionez, Udalak ere indarraren erabilera dokumentatu eta arrazoitu du, barne-ikerketa bat





egin du gertakariak argitzeko eta pertsona hori identifikatzeko orduan egin duen indarraren erabileraren inguruan duen iritzia helarazi du.

3. Indarraren erabileraren ikuskapenari dagokionez, Arartekoa atxilotuarekin erabilitako indarrera mugatuko da beren-beregi, arestian aipaturiko arrazoiengatik.

Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean indarraren erabileraren kontrola aztertzen da (II.2.1 atala), eta azpimarratzen da azken baliabide gisa baliatu behar dela beti eta zorrotz errespetatu behar direla egokitasunaren, premiaren eta proportzionaltasunaren legezko printzipioak.

Gomendioan, era berean, ikuspegi materialetik ere aztertu da indarraren erabilera (IV atala). Hala, ondorioztatu da indarraren erabilerari aplikaturiko proportzionaltasun-printzipioaren arabera, erabaki hori egokia izan behar dela lortu nahi den helburua erdiesteko, ez dagoela aukerarik hain kaltegarriak ez diren eta helburu hori erdiesteko neurri berean egokiak diren bestelako neurri batzuetara jotzeko eta neurriak ez duela eragin behar ekidin nahi diren kalteak baino kalte larriagorik. Halaber, lortu nahi den xederako ahalik eta indar gutxien erabili behar da. Horrek esan nahi du, erabilitako bitartekoa kaltegarria ez dena izan behar dela eta kaltegarria ez den moduan erabili behar dela.

Hori dela eta, kasu bakoitzean bat egiten duten inguruabar zehatz guztiak zehaztasunez ezagutzea funtsezkoa da indarkeria barne hartu behar izan duen poliziaren jarduketa bakoitza baloratu ahal izateko. Horregatik, Arartekoak indarkeriaren erabilera kontrolatzeko mekanismo zehatzak aztertzerakoan agerian jarritakoa errepikatu du, hau da, neurriaren legezotasunari buruzko epaiketa egiteko beharrezkoak diren elementu guztiak behar bezala dokumentatu behar direla.

Dagoeneko adierazi dugu Udalak indarraren erabilerari buruz eman digun informazioa nahikoa dela erakunde honek baloratzeko ea agenteek atxiloketan erabili zuten indarrak errespetatu zituen egokitasunaren, premiaren, arrazoikotasunaren eta proportzionaltasunaren legezko printzipioak.

Informazio hori aztertu ostean, Arartekoak egiaztatu duenez, guk esku hartu behar izatea eragin duen Bilboko Udaltzaingoaren esku-hartzea ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion betebeharren eta eginkizunen esparruan kokatzen da; hortaz, agenteen jarrerak erabateko babes legala izango luke bere jatorrian, izan ere, ez zen izan jarduketa arrazista bat, ebasketa baten aurrean egindako jarduketa bat baizik.

Hala ere, erabilitako indarraren inguruan balorazio egoki bat egiteko, lehenik eta behin, bidalitako eta arestian aipaturiko informazioa aztertu behar dugu.





Jarduketa baloratzeko txostenean, gaitzespena, esku-hartzearen ikuspegi kritiko batetik, honela bakarrik ulertzen da: *“la inmovilización y traslado del arrestado se debería haber realizado de forma más inmediata, evitando forcejear con aquel”*. Bestalde, polizia-jarduketaren barne-ikerketara amaitutzat ematen duen txostenean honako hau adierazi da: *“Sí hay un reproche en la actuación del agente nº xxxx, que cuando se acerca al detenido en el portal le empuja, dándole contra la puerta”*. Azkenik, Herritarren Segurtasuneko zinegotziaren erantzunean honako hau ondorioztatu da: *“en la práctica de la detención no hay un componente discriminatorio de raza en el momento de la detención y que hay un uso proporcional de la fuerza empleada por los agentes en dicha detención, si bien se observa alguna practica mejorable”*.

Erakunde hau bat dator aurreko ondorioekin, baina uste dugu ezinbesteko gutxieneko indarra erabili zela uneoro atxilotu gaizatzeko.

Hain zuzen ere, poliziaren esku-hartzearen sekuentziaren azterketan eta atxilotu gaizatu ahal izateko erabilitako indarra neurritzakoa eta egokia izan zen baloratzeko prozesuan, bi momentu antzeman dira, non indarraren erabilera ez zen beharrezkoa berau baliatu zen baldintzetan eta, hortaz, neurritz kanpoko eta desegokia izan zen.

Barne-ikerketaren txostenean agerian jartzen da agente baten jarrera desegokia, izan ere, *“atxilotuarengana hurbildu zenean atarian bultzatuta egin zion, eta ateara kontra jo zen”*.

Bestalde, grabaturiko irudietan ikus daitekeenez (06:51:07 ordutegia), atxilotua lurrean zegoenean bi agente bera eusten zeudela, menderatuta eta mugitzeko aukerarik gabe, beste eraso bat pairatu zuen (belarrondokoa aurpegian).

Txostenen arabera, atxilotua immobilizatu zuten agenteek neurritz erabili zuten indarra, atxilotuak aurka egin zela agenteei; baina erakunde honen ustez, atxilotuaren jokabidean ez dago erresistentzia larritzat jotzeko moduko oldarkortasun-mailarik, eta ez dirudi agenteen, hirugarren pertsonen edo herritarren segurtasunaren osotasun fisikoari dagokionez arrisku larri egon zenik.

Agenteak diren arren atxilotu nahi zuten pertsonaren erreakzioaren intentsitatea eta oldarkortasuna baloratu behar dutenak, hala badagokio, indarra neurritz erabili zela ondorioztatuzko, bideozaintzako irudiak ikusi ostean, pentsa liteke ez zela beharrezkoa belarrondokoa ematea atxilotu nahi zen pertsona indargabetu eta kontrolatzeko, izan ere, dagoeneko lurrean menderatuta zegoen eta, beraz, atxilotuari belarrondokoa ematean erabilitako indarra gehiegizkoa eta desegokia izan zela ondorioztatu daiteke.







Laburbilduz, Arartekoak uste du jarduketa desegoki eta bidegabeta izan daitezkeela atxilotetaren unean jaso zuen bultzada zein menderatuta zegoenean jaso zuen belarrondokoa. Hori dela eta, udal horri eskatu behar diogu bi une jakin horietan agenteek erabili zuten indarraren inguruko azterketa sakona egin dezala, Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jasotako gidalerroen arabera.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Bilboko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **GOMENDIOA**

Udalak iker ditzala polizia-jarduera batzuk, izan ere, ustez ebasketa burutu zuen pertsona bat atxilotzean, baliteke poliziak indarra neurritz kanpo eta modu desegokian erabili izana. Eta, hala badagokio, har ditzala beharrezko neurriak, diziplinazkoak edo bestelakoak.

